

# Hautaprobak 2005-08: Kimika Organikoa

Ekaina - 2005 C1

**C1** – Animalia eta landare batzuk, esaterako inurriak eta asunak, azido formikoa (metanoikoa) jariatzen dute, giza-azalerako oso erresumingarri dena.

a) Azaldu, argudio kimikoak erabiliz, eraginkorra izango ote den amoniako-disoluzio bat minutuko azalaren gainean aplikatzea edo eta inolako oinarri zientifiko gabeko ohitura bat ote den.

b) Idatzi bi erreakzio, bat oxidaziozkoa edo erredukziozkoa eta bestea esterifikaziozkoa, zeinetan azido metanoikoak parte hartzen duen, parte hartzen duten osagai guztiak izendatuz.

Uztaila - 2005 C5

**C5** – Ondoko erreakzioak idatzi, erreaktiboak eta produktuak izendatuz:

- a) 2-propanolaren oxidazioa
- c) etanolaren deshidratazioa

- b) hidrogeno kloruroaren adizioa, propenoari
- d) metilo azetatoaren hidrolisia

Ekaina - 2006 C3

**C3** – Honako produktu hauek lortzeko egin behar diren erreakzioak idatz itzazu. Kasu bakoitzean, erreakzionatzaileen eta emaitzen izenak idatz itzazu, baita erreakzio motaren izena ere:

- a) propilo azetatoa
- c) propanoa propinotik hasita
- b) amonio propanoatoa
- d) butanona dagokion alkoiletik hasita

Uztaila - 2006 C4

C4 – Ondorengo erreakzioak osa itzazu emaitzen izenak jarrita:

- a) 1-butenoa + HBr  $\Rightarrow$
- b) azido propanoikoa + etanola  $\Rightarrow$
- c) 2-propanolaren oxidazio leuna  $\Rightarrow$
- d) 1-butanolaren deshidratazioa  $\Rightarrow$

Ekaina - 2007 C5

C-5.- Erreakzio hauek modu arrazoituan osa itzazu, erreaktiboak eta produktuak izendatuz:

- a)  $\text{CH}_4 + \text{Cl}_2 \rightarrow$
- b)  $\text{CH}_3 - \text{CH} = \text{CH}_2 + \text{HCl} \rightarrow$
- c)  $\text{CH}_3 - \text{CHOH} - \text{CH}_3 + [\text{O}]$  (oxidazioa)  $\rightarrow$
- d)  $\text{CH}_3 - \text{CHO} + \text{H}_2$  (erredukzioa)  $\rightarrow$

Uztaila - 2007 C5

C-5.- Ahalik eta masa molekular txikien eta haien halogeno-atomoak, hain zuzen, karbono primario, sekundario eta terziario-en gainean duten hiru deribatu monohalogenatuak lortu nahi ditugu.

Zein substantziak behar diren esan. Sustantzia hauek lortzeko behar diren erreakzioak idatzi eta produktu monohalogenatu hauek izendatu.

Ekaina - 2008

C5

**C-5.-** Idatzi produktu hauek lortzeko erreakzioak eta aipatu errektiboak

- 2-kloropropanoa
- propilo-etanoatoa
- propanona
- azido butanoikoa

Uztaila - 2008

C3

**C-3.-** Ingurunean sortzen duen inpaktua dela eta, 1,1,2-trikloroeteno disolbatzailea deuseztatu egin nahi dute.

Bizkaiko enpresa batean honela lortzen zen:

- Lehenengo, kaltzio karburua urarekin erreakzionarazten zen, etinoa edo azetilenoa eta kaltzio hidroxidoa sortzeko.
- Bigarrenik, etinoa gas-egoeran dagoen kloroarekin erreakzionarazten da, deribatu tetrahalogenatu bat lortzeko.
- Azkenik, deribatu horrek kaltzio hidroxidoarekin erreakzionatzean aipatutako disolbatzailea sortzen du (kaltzio kloruroaz eta uraz gain).

Erantzun eta arrazoitu:

- Idatzi eta doitu aipatutako erreakzioak.
- 1,1,2-trikloroeteno disolbatzailearen zenbat gramo lor daiteke 50 g kaltzio karburorekin, baldin eta etekina % 100ekoa bada?

**DATUAK:** Masa atomikoak: C=12,0; Ca=40; Cl=35,5